

1. Nor dena gillotinareen alde?
2. Gizon hiltzaleak zer gogo du?
3. Badirea barne oneko jendeak gillotinareen alde?

II

GILLOTINA. 2.

Gizon tzar bihotz-gabe heiek harriturik utzi zuten Frantzia dohakaboa; gillotinareen izena bera ez baititake aipha, hetaz eta heien egitate¹³ lazgarriez orhoitu gabe.

Eta halere —ahalgegarri¹⁴ dena, gizon handiak zirela hek, erranen dautzuate oraiko hauiek. Ez dakite zer derasaten, edo barnez hek iduriak dire.

Gauza segura dena da, orai ere tzarrenak, herratsuenak¹⁵, odol ixurtzearen gutienik beldur litazkenak direla beroenik gillotinareen kentzera.

Kentze horren alde direla, lehen-lehenik nor? Gizon hiltzaleak; norbeit ja hilik dutenak edo hil gogo¹⁶.

Hitz batetik bertzean bulharretara puñalaz eman lezakezutenak edo tripan tirahalako ostiko¹⁷ batez gizona lurrerat hil-gor aurdik¹⁸ lezaketan guziak oro gillotinareen kontra dire.

Poxolu¹⁹ dute, ageri da.

Bizkitartean aski lukete nehor ez hiltzea; ez lukete gillotinareen beldur izaiterik. Ez baitire ordean hortarik ari!

Egia erran behar da: ez dire bakarrik jende hiltzaleak eta heien idurikoak, gillotinareen kontra. Bada bertzerik. Ez balitz tresna lazgarri hori baitzepadara beharra; zuzen ez balitz, gizon hiltzalea, odol-hotzean, tzarkeriaz, bere idurikoa hil duena hil dadin; ez balitz bertzalde larderia²⁰ izigarri horren beharra, gaixtaginen izi tzeko; oro ez bada, zonbeit bederen ez balitu horrek gogoetazten, lotsarazten, gibelatzen, begiratzen hil nahi luketenaren hiltzetik... hori ez balitz, orok ginuke behar gillotina gaitzetsi, madarikatu; puskaturik zokhorat aurdiki; edo erre, suntsitu sekulakotz. Ez balitz ere horrek Frantzian bertze orduz²¹ egin dituen sarraskien orhoitzapenetan baizik. Fuera gillotina behar ginuke orok oihu egin; eta egin ginezake gogotik.

Ba bainan, larderia hori kenduta, gero, nor egin burutzirik²² ohoin tzar, gizon-hiltzale deusen beldur ez litazkenekin?

Hori da gogoetagarri.

Eta futxo²³ halere, barne oneko gizonetan ere frango izanki gillotinareen kontra. Diotelarik: hortara gabe gizon-hiltzaleak biribilka²⁴ ditazkela eta itzalerat eraman sekulakotz.

III ADITZ IKASKUNTZA.

31 Baititake 32. Litazkenak

33 Lezakezutenak 34. Lukete.

31. IZAN. Potentiel présent.

Ni izan naitzake (nitake) = je peux être

Hi " haitzake = tu peux être

Zu " zaitzake = vous pouvez être

Hura " daitzake (ditake) = il peut être

Gu " gaitzake = nous pouvons être

Zuek " zaitzake = vous pouvez être

Heek " daitzake = ils peuvent être

32 IZAN. Conditionnel présent.

Ni izan nintzake (nintake) = je serais

Hi " hintzake = tu serais

Zu " zintzake = vous seriez

Hura " dintzake (dintake) = il serait

Gu " gintzake = nous serions

Zuek " zintzake = vous seriez

Heek " dintzake (dintake) = ils seraient

33. UKAN. Conj. à 3^e pers. pl. Conditionnel. O. Sing.

UKAN nezake = je l'aurais. Neri = à moi

Zuk zinezaket = vous me l'auriez.

Harek lezaket = il me l'aurait.

Zuek zinezaket = vous me l'auriez

Heiek lezaket = ils me l'auraient

Zuri = à vous

Nike nezakezu = je vous l'aurais

Harek lezakezu = il vous l'aurait

Guiek ginezakezu = nous vous l'aurions

Heiek lezakezute = ils vous l'auraient